



KAZETARIEN EUSKAL ELKARGOAREN ESTATUTUAK

HITZAURREA

Kazetarien elkargo ofizialak sektore estrategiko baten beharraren eta bultzadaren adierazle dira, komunikazio eta informazioa sektorearena, haren mende baitago gure demokraziaren kalitatea.

Gaur egungo gizartearen erronken aurrean, beharrezko tresnak dira kazetarien elkargoak, gaitasunez, kritiko izanez, erantzukizun sozialez eta pluraltasunez aurre egiteko kazetaritzaren arazoei. Informazio-askatasunaren, kalitatezko lanaren, lanbideko arauen eta deontologia profesionalaren jagoak dira elkargo profesionalak.

Kazetarien Euskal Elkargoa sortu izana aukera bat da kazetaritza-lanbidearentzat: erakusten du beharrezkoa dela beste egitura asoziatibo batzuk sortzea, sektorea dinamizatzeko eta parte-hartzaileagoa izateko. Komunikabideetan egiten den lana nabarmen aldatu da azken hamarkadetan, batez ere informazio teknologia berriak sartu direnetik.

Katalunia, Valentzia, Galizia eta Murtziako esperientziak ikusita, ondorioztatu da egokia eta beharrezkoa dela Kazetarien Euskal Elkargoa sortzea, dagoeneko existitzen diren elkarten esperientziak eta araudiak hartuta, haiei zor baitiegu arlo legegilean aurretiaz egindako lana.

1. KAPITULUA: DEFINIZIOA ETA EGITEKOAK

1. ARTIKULUA. DEFINIZIOA

Kazetarien Euskal Elkargoa zuzenbide publikoko korporazio bat da, nortasun juridiko propioa du eta gaitasun osoa sorrerako helburuak betetzeko. Hain zuzen, ekainaren 28ko 17/2012 Kazetarien Euskal Elkargoa Sortzeko Legearen bidez sortu zen (EHAA 132. zk.).

Kazetarien Euskal Elkargoak nortasun juridikoa du haren sorrerako legea indarrean sartu zenetik, eta jarduteko gaitasuna gobernu-organoak eratu zirenetik.

2. ARTIKULUA. LURRALDE EREMUA

Elkartearen jarduera-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da.

3. ARTIKULUA. EGITEKOAK

Elkartearen egitekoak hauek dira:

- Kazetariak lanerako dituzten baldintzen hobekuntzan sakontzea.
- Elkarteko kideen babes profesionala.
- Elkarre profesional batek eskaini ohi dituen laguntza-zerbitzuak eskaintzea.
- Gizarte libre eta demokratiko baten mesedetan, informazio-askatasuna eta -independentzia bermatzea.
- Espainiako Konstituzioko 20.1 artikuluekin bat etorritik, herritar guztien informazio- eta adierazpen-askatasunerako eskubidea babestea.
- Gizarte babestea gertakarien errealitatea propio desitxuratu nahi duten informazioetatik.
- Espainiako Konstituzioak ere arautzen eta biltzen duen bezala, ahalegin berezia egitea lanbide-sekretuaren defentsan eta kontzientzia-klausularen aplikazioan.
- Elkarteko kideen nahiz kazetaritza-kolektiboko kideen prestakuntza sendotzera edo osatzera bideratutako komunikazio enpresak sortzeko egitasmoak sustatzea edo babestea.
- Indarrean dagoen EAEko elkarre profesionali buruzko araudian bildutako gainerako egitekoak.

4. ARTIKULUA. HELBIDEA

Kazetarien Euskal Elkargoa Santimami zuzendua, 37, 4. solairua, 6 departamentuan dago helbideratuta. Gobernu-batzordeak helbidea aldatzeko aukera izango du. Era berean, beharrezko iruditzen zaizkion ordezkaritzak ezarri ahal izango ditu; horretarako, beharrezkoa izango da kideen batzar nagusiak onartzea eta dagokion batzordeak oniritzia ematea.

5. ARTIKULUA. HIZKUNTZA OFIZIALA

Konstituzioak eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuak ezarritako koofizialtasuna kontuan hartuta, euskara eta gaztelania izango dira Kazetarien Euskal Elkargoaren hizkuntzak.

2. KAPITULUA: ELKARGOKO KIDE IZATEA

6. ARTIKULUA. SARTZEKO BALDINTZAK

- Kazetarien Euskal Elkargoak Informazio Zientzietako unibertsitate-titulua dituzten profesionalak bilduko ditu, Kazetaritza, Ikus-entzunezko Komunikazioa edo baliokidetzat jotzen diren adarretakoak.
- Profesional atzeritarrei dagokienez, profesional horien kalifikazioak onartze aldera, Europako Erkidegoko Zuzenbidea ezartzeko indarrean dauden arauak erabiliko ditu dagokion agintaritzak.
- Kazetaritzako lehen zikloa amaituta dutenek aurrez izena eman ahal izango dute elkargoan,

baina ez dira eskubide osoko kide izango ikasketak amaitu eta lizentziatura lortu arte. Horientzat, “aurrez izena emandakoen” edo “aurrez kolegiatutakoen” irudia du Kazetarien Euskal Elkargoak, eta eskubide hauek dituzte: informazio- eta prestakuntza-jardueretan parte hartu dezakete; elkargoaren argitalpenak jasoko dituzte; erakundeak antolatutako ekitaldiei buruzko oharra jaso ahal izango dituzte; eta ekitaldi eta saioetan parte hartu ahal izango dute. Alabaina ez dute boto-eskubiderik izango ikasketak amaitu eta elkargokide direla formalki adierazi artean. Ikasketak amaitu eta sei hilabeteko epean ez eskatuz gero elkargokide izatea (betiere estatutuek finkatutako baldintzak betetzen baditu), pertsona horrek “aurrez izena emandakoa” izateari utziko dio.

7. ARTIKULUA: ONARPENA

ELKARGOKIDEEN ONARPENA ELKARGOIA SORTZEN DENEAN

- Kazetarien Euskal Elkargoaren Legea onartzen denean, estatutu hauetan finkatutako baldintzak betetzen dituzten Euskal Kazetarien Elkarteko kide guztiek Kazetarien Euskal Elkargoko kide izatera pasatzeko aukera izango dute automatikoki, ados daudela adierazten badute. Era berean, Kazetarien Euskal Elkargoko kide izan daitezke ekainaren 28ko 17/2012 Kazetarien Euskal Elkargoia Sortzeko Legearen 3. artikuluko eta estatutu hauetako 6. artikuluko baldintzak betetzen dituzten guztiak.
- Kazetarien Euskal Elkargoia sortzen denean, onarpen-batzordeak aztertuko du kideen onarpena. Euskal Kazetarien Elkarteko batzordeko kideek osatuko du batzorde hori. Eskaera egin dutenek eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatutakoan, elkargoko kide izateko duten eskubidea aitortuko du batzordeak, eta proposamena igorriko dio gobernu-batzordeari. Batzorde horrek emango du ebazpena, eta zer erabaki duen idatziz jakinaraziko dio eskaera egin duenari. Onarpena ez da gauzatuko kolegiatzeko eskubideak behar bezala ordaindu artean; eskaera automatikoki bertan behera geratuko da hiru hilabetera.
- Kazetarien Euskal Elkargoak elkargokide berriak onartzeko batzorde propioa sortzen duenean, haren esku egongo da zeregin hori; hau da, funtzio hori betetzeari utziko dio Euskal Kazetarien Elkarteko onarpen-batzordeak.

8. ARTIKULUA: ONARPENA UKATZEA ETA ERREKURTSOAK

Elkargokide izateko eskaera ez da onartuko eskaera egiten duenak ez baditu betetzen 6. artikuluko baldintzak. Eskaera ukatzen zaienek eskaera berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango diote elkargoko gobernu-batzordeari. Hark beste ebazpen bat emango du, eta amaitutzat emango du administrazio-bidea. Ondoren, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzibidea hasi ahal izango du eskatzaileak.

9. ARTIKULUA: OHOREZKO ELKARGOKIDEAK

- Salbuespen kasuetan, eta meritua eta ibilbide profesionala aintzat hartuta, Kazetarien Euskal Elkargoak ohorezko elkargokideak izendatu ahal izango ditu. Gobernu-batzordearen bidez egingo du hori, eta batzar nagusiaren oniritziarekin.
- Elkargoaren zentzua eta izatea bideratzen eta zuzentzen duten helburuekin bat etorritik, gobernu-batzordeak egokiak iruditzen zaizkion sariak eta goraipamenak antolatu ahal

izango ditu.

10. ARTIKULUA: ALDI BATERAKO BORONDATEZKO ETENALDIA

Elkargokideek elkargokide izateari uzteko eskatu ahal izango diote Kazetarien Euskal Elkargoko gobernu-batzordeari, arrazoi bat aurkeztuta.

Borondatezko etenaldiak estatutueta finkatutako eskubideak galtzea dakar, baita kuotaren ordainketa aldi baterako etetea ere. Alabaina, etenaldi horrek ez dakar salbuespenik, eta bete egin behar dira elkargoaren estatutuek finkatutako betebeharrak profesional etikoak. Borondatezko etenaldia eskatu duen elkargokideak edozein momentutan eskatu ahal izango du etenaldi hori bertan behera uzteko, eta elkargokide izateak dituen eskubideak berreskuratuko ditu. Borondatezko etenaldia bertan behera geratzen denetik aurrera, elkargokideak berriro ordaindu beharko ditu kuotak. Beste etenaldi bat eskatzeko, beste eskaera bat egin beharko da.

3. KAPITULUA: ELKARGOKIDEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

11. ARTIKULUA: ESKUBIDEAK

1. Elkargokideek eskubide hauek dituzte:

- Eskubide profesionalak babestekoa agintari, erakunde, enpresa edo norbanakoen aurrean.
- Gobernu-batzordearen arreta eta esku-hartzea izatekoa lanbidearen jarraipena mehatzatzen duen gatazka-egoera baten aurrean, arrazoia edozein izanda ere.
- Hauteskunde-prozedura arautzen duten baldintzei jarraituz, zuzendaritza-organoko kideak aukeratzeko edo aukeratua izatekoa. Botoa postaz emateko eskubidea bermatuko da estatuetan finkatutako terminoetan.
- Araudiak finkatutako baldintzekin bat etorrita, elkargoak jarritako zerbitzu guztiak erabiltzekoa.
- Lanbidearekin lotutako arazoetan, aholkularitza juridikoko zerbitzua izatekoa, elkargoak ezarritako kasuetan.
- Elkargoaren jardueraren jarraipena egitekoa haren argitalpenen bidez (informazio-dokumentuak, buletinak, urtekariak, zirkularrak eta bestelako dokumentuak); elkargoaren erregistro eta liburu ofizialetarako sarbidea izatekoa.
- Elkargoaren zereginetan parte hartzekoa, ekimen propioz edo gobernu-organoei eskatuta.
- Gobernu-organoei iradokizun, eskaera edo kexak biltzen dituzten idatziak aurkeztekoa.
- Elkargoak antolatutako batzarretan ahotsa eta botoa izatekoa.
- Elkargokideen ekimenez eta estatutu hauetan zehazten den moduan, gobernu-organoei kideak kargugabetezkoa zentsura-mozio bidez.

2.- Elkargoaren baitan, interesen zehatz batzuk ordezkatzeko taldeak sortu ahal izango dituzte elkargokideek.

12. ARTIKULUA: ELKARGOKIDEEN BOTOA

Elkargoko kide guztiek izango dute botoa emateko eskubidea batzar eta hauteskunde guztietan. Estatutu hauetan finkatutako prozedurari jarraitu behako zaio.

13. ARTIKULUA: BETEBEHARRAK

Elkargokideek obligazio edo betebeharrak hauek izango dituzte:

- Kazetaritza-zereginak zeregin informatiboei lotutako lanbide-etikarekin bat etorriz eta lanbide-sekretuari eutsiz gauzatzea. Epigrafe honi dagokionez, elkargoak kode deontologiko profesional propioa izan artean, Espainiako Kazetari Elkartearen Federazioaren eta Kataluniako Kazetarien Elkargoaren kode deontologiakoak hartuko dira erreferentziatzat.
- Estatutuetan eta arauetan jartzen duena betetzea nahiz batzarretan hartutako erabakiak onartzea; alabaina, estatutuak urratu direla iritziz gero, helegiteak jartzeko aukera egongo da.
- Deitutako bakoitzean gobernu-batzordera agertzea.
- Bizitoki aldaketak eta egoera profesionaleko aldaketak jakinaraztea.
- Elkargokide izateko jartzen diren kuotak ordaintzea.

14. ARTIKULUA: ELKARGOKIDE IZAERA GALTZEA

Elkargokide izateari utziko zaio kasu hauetan:

- Hildakoan.
- Norbere borondatez (idatziz jakinarazi behar da).
- Elkargoaren kuotak ez ordainduz gero; baja eman aurretik, eskatu egingo da kuotak ordaintzeko. Ordainketak eguneratu izateak esan nahi du gutxienez urte amaierara arteko kuotak eta derramak osorik ordainduta izatea.
- 15. artikuluan ageri diren arau-haustek errepikatuz gero.

4. KAPITULUA: DIZIPLINA ARAUBIDEA

15. ARTIKULUA: DIZIPLINA ERANTZUKIZUNA

Elkargoko betebeharrak edo betebeharrak deontologikoei dagokienez, diziplina-erantzukizunaren mende daude elkargokideak. Larritasunaren arabera sailkatuko dira arau-haustek, eta dagokion diziplina-espeditatea tramitatuz zigortuko dira.

16. ARTIKULUA: DIZIPLINA GAITASUNERAKO ESKUMENA

Gobernu-batzordearen esku dago diziplina-gaitasunerako eskumena. Elkargokideak zigortu ahal

izango ditu haien jokabideak hurrengo artikuluan zehaztutakoak urratzen dituela iritziz gero. Zigorak estatutu hauetan adostu bezala tramitatuko dira.

17. ARTIKULUA: ARAU HAUSTEAK

Arau-haustek larritasunaren arabera sailkatuko dira: falta arinak, falta larriak eta falta oso larriak. Era berean, indarrean dagoen EAeko elkargo profesionaleri buruzko araudian finkatutakoa aplikatuko da.

- **Falta arintzat hartuko da:**

Estatutu hauek elkargokide izateko finkatutako betebeharren, araudiak finkatutako betebeharren edo batzarrak eta gobernu-batzordeak sinatutako akordioen aurrean zabarkeriazko ekintza eta jokabideak izatea.

- **Falta larritzat hartuko dira:**

- a) Elkargoak ezarritako betebeharrak nabarmen urratzea dakarten ekintzak edo huts-egiteak.
- b) Elkargoko gainerako kideei, ekonomiari edo elkargoaren izen onari kalte egiten dioten ekintza eta huts-egiteak edo kazetaritza-lanbidearen duintasunarentzat kaltegarriak direnak.
- c) Falta arin moduan zigortutako gertakari bat berriro egitea.

- **Falta oso larritzat hartuko dira:**

- a) Kazetaritza-jarduera erabiltzea propio publizitate-jarduera bat ezkutatzeko.
- b) Falta larri moduan zigortutako gertaera bat berriro egitea.

18. ARTIKULUA: ZEHAPENAK

- Falta arinei dekanok pertsonalki egindako ohartarazpen pribatu baten bidez ezarri ahal izango zaie zehapena, edo idatzizko ohar baten bidez jasoko dira elkargokidearen espedientean.
- Falta larriak ohartarazpen publiko baten bidez zehatu ahal izango dira, edo elkargokide izateak dituen eskubideak eten ahal izango dira aldi baterako (gehienez urtebete).
- Falta oso larriak elkargokide izateak dituen eskubideak urtebete baino gehiagoan eta bost urte baino gutxiagoan etenda zehatu ahal izango dira. Berriro eginez gero, elkargokide izaera eten eta elkargotik botatzeko aukera ere egongo da.

19. ARTIKULUA: DIZIPLINA PROZESUA ETA BERMEAK

Interesatuak esandakoak entzun arte, ezingo da inolako zehapenik ezarri.

- Ofizioz hasi ahal izango da diziplina-prozedura, edo anonimoa ez den salaketa baten bidez.

Dekanoak, gobernu-batzordearen oniritziarekin, instruktore bat edo instrukzio-batzorde bat izendatuko du espedientearentzat. Espedientea ireki aurretik, aurretiazko eginbideak aztertu ahal izango ditu instrukzio-batzordeak.

- Espedientea tramitatzekoan, uneoro errespetatuko dira aplikagarri diren printzipio juridikoak, eta bereziki espedienteak eragiten dionak esandakoak.
- Behin betiko ebazpena idatzizkoa eta arrazoitua izango da, eta jakinarazi egin beharko zaie eragiten dienei.
- Ustez arauak hautsi dituen gobernu-batzordeko kidea bada, ez du parte hartuko ebazpenean, eta batzordeak kasu horri buruz egindako bozketetan ere ez.

20. ARTIKULUA: ERREKURTSOAK ETA PRESKRIPZIOA

- Berraztertze errekurtsoa zehapen guztiekin eskatu ahal izango zaio gobernu-batzordeari. 15 eguneko epea egongo da, interesatuak ohartarazpena jasotzen duen egunetik hasita. Errekurtsoa hiru hilabete baino lehen ebatziko da. Behin bide korporatiboa agortutakoan, administrazioarekiko auzibidetik errekurritu ahal izango da gobernu-batzordearen ebazpena.
- Egin eta urtebetara preskribatuko dira falta arinak; larriak, bi urtera; eta oso larriak, hiru urtera.
- Arau-hauste oso larriei ezarritako zehapenak hiru urtera preskribatuko dira; arau-hauste larriei jarritakoak, bi urtera; eta arau-hauste arinei jarritakoak, urtebetara.
- Zehapen-ebazpena irmoa izan eta biharamunetik kontatuko da zigorraren preskripzio-epea. Zehatuak zehapena urratzen duenean, urratze-datatik hasiko da zehapenaren preskripzio-epearen kontaketa.

5. KAPITULUA: ELKARGOAREN GOBERNU ORGANOAK

21. ARTIKULUA: ANTOLAKETA

Hauek dira elkargoaren organoak:

- **Presidentetza-organoa:** dekanoa.
- **Gobernu-organoa:** gobernu-batzordea.
- **Osoko bilkura:** batzar nagusia.
- **Lurralde-batzordea:** lurralde historikoetako elkargokideek osatutako batzordeak.

Gobernu-organoko kideak sufragio unibertsal bidez aukeratuko dira. Botoa askea, zuzena eta sekretua izango da, eta pertsonalki edo posta bidez emango da.

22. ARTIKULUA: MUGAPEAK

Kazetarien Euskal Elkargoak mugape hauek izango ditu: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.

23. ARTIKULUA. GOBERNU BATZORDEA: BATZARRA ETA BATZORDE IRAUNKORRA

- Gobernu-batzordea kargu hauek osatuko dute: dekanok, dekanordeak, idazkariak, diruzainak, eta gutxienez, sei batzordekidek. Lau urterako izendatuko dira kargudunak, eta estatutuetan adierazi bezala berrituko dira. Gobernu-batzordeak dekanoren eta idazkariaren aurrean hartuko ditu erabakiak, edo hala ez bada, haien ordezkari diren pertsonen aurrean, eta gutxienez kideen erdiek egon beharko dute.
- Gobernu-batzordea batzarrean edo batzorde iraunkorrean bilduko da.
- Batzarra hauek osatzen dute: dekanok, dekanordeak edo dekanordeak, idazkariak, diruzainak eta batzordekideak.
- Batzorde iraunkorra hauek osatzen dute: dekanok, idazkariak eta diruzainak.
- Edozein arrazoi medio gobernu-batzordeko kargu guztiak hutsik geratzen badira, behin-behineko batzorde bat izendatuko da elkargoan denbora gehien daramaten kideekin. Behin-behineko batzorde horrek hauteskundeak antolatuko ditu hogeita hamar egun naturaleko epean, hutsik dauden kargu horiek betetzeko agintaldia amaitzen den arte. Deialdia egin eta egutegiko hogeita hamar egun igaro baino lehen egin beharko dira hauteskundeak. Era berean, karguen erdiak edo gutxiago geratzen badira hutsik, behin-behinean osatu ahal izango dira kargu horiek, eta hauteskundeak antolatuko dira behin betiko betetzeko.
- Gobernu-batzordeak eta mugape edo lurralde historiko bakoitzeko ordezkari batek osatuko dute lurralde-batzordea. Lurralde bakoitzak ordezkari bat izango du 50 elkargokideko.
- Batzar nagusia elkargoko kide guztiek osatuko dute.

24. ARTIKULUA: BATZORDEKO KIDEEN ZEREGINAK

- Gobernu-batzordearen zereginak hauek dira: elkargoa zuzentzea, administratzea eta gobernatzea; batzarra eta lurralde-batzordeak hartutako erabakiak betetzea eta betearaztea; elkargokideak babestea haien helburu profesionalak bete ditzaten; eta erakundearen inbertsio-funtsak izatea. Gobernu-batzordeak ulertu egingo ditu bere erabakien aurka aurkeztutako berraztertze-kasuak.
- Erabaki guztiak gehiengoz hartuko dira. Berdinketaren bat egonez gero, dekanoa izango da erabakitzailea.
- Dekanok zeregin hauek izango ditu: elkargoaren lege-ordezkaria izango da; batzar nagusiaren, gobernu-batzordearen, lurralde-batzordearen eta lurralde historikoetako batzarren saioen buru izango da; batzar nagusiak eta gobernu-batzordeak egindako akordioak betetzen direla zainduko du; gai-zerrenda finkatuko du; ordainketak baimenduko ditu; saioen aktak gainbegiratu ditu.
- Dekanordearen zeregina izango da dekanoa ordezkatzeko hark dimititzen badu, gaixo badago edo ez bada gai bere betebeharrak gauzatzeko.
- Idazkariak zeregin hauek izango ditu: aktak idaztea eta, dekanok gainbegiratu ostean, akta

horiek baimentzea bere sinadura bidez; gobernu-batzordearen, batzar nagusiaren eta lurralde-batzordearen akordioak betetzea; elkargoaren artxiboak, dokumentuak eta ziguilak babestea; dekanoarekin batera bileren gai-zerrenda prestatzea; korrespondentziaren erregistro-liburua eguneratuta izatea; eta elkargokideen erregistroa kontrolatzea.

- Diruzainak zeregin hauek izango ditu: elkargoaren ondarea jagotea; antolaketa, kontabilitate eta aurrekontuaren aurreproiektua egitea; kontabilitatea zuzentzea; erakundearen diru-sarreraren agiriak igortzea eta sinatzea; elkargokideei kuoten ordainketak egiteko eskatzea; eta adostutako ordainketak egitea.
- Beharrezkoa izanez gero, batzordekideek idazkaria eta diruzaina ordezkatu ahal izango dituzte, hautagai-zerrendan aurkeztutako hurrenkeran. Esandakoekin eta botoarekin, batzordearen erabakiak sendotzen dituzte batzordekideek, eta batzordeak agindutako zereginak bete behar dituzte.
- Kazetarien Euskal Elkargoa presente dagoen organoetan burutu beharreko ordezkari-tza-zereginak batzordekideen artean banatuko dira. Eraginkortasunez esku hartuko da beharrezko lan-batzordeetan, ezinbesteko baldintza izanik ahalik eta baliagarrienak izatea kolektibo profesionalaren interesentzat.

25. ARTIKULUA: LURRALDE BATZORDEAREN EGITEKOAK

Lurralde-batzordearen egitekoa da batzar nagusiari aurkeztuko zaizkion proposamen, jarduera eta iradokizunak onartzea.

26. ARTIKULUA: BILEREN ALDIZKAKOTASUNA

- Gobernu-batzordea gutxienez bi hilabete behin bilduko da, eta kideen %20k eskatuz gero, dekanuari beharrezko iruditzen zaion guztietan. Dekanoaren xedapenez, idazkariak deituko ditu gobernu-batzordeko kideak ohiko bilkurara, gutxienez bilera-data baino 72 ordu lehenago, eta gai-zerrenda jarrita egongo da. Eguna eta ordua iristen direnean, gobernu-batzordeak saioa egingo du dekanoa eta idazkaria han baldin badaude, edo bestela, haien ordezkariak diren pertsonak han badaude. Kideen erdiak gehi bateko parte-hartzea ere beharrezkoa izango da.

Bestela, batzordea ordu erdi beranduago bilduko da, eta esandako **quoruma** ez osatuta ere, hartutako akordioek balioa izango dute, betiere dekanoa eta idazkaria han badaude (edo haien ordezkariak diren pertsonak) eta kideen erdiak gehi bat ere bai.

Larrialdi-kasuetan, behar bezala arrazoituta egonez gero, ezohiko batzar nagusirako deia egin ahal izango da. Batzar horren berri emateko ez da denbora-mugarik egongo.

Gobernu-batzordeko kide batek bost aldiz jarraian huts egiten badu bileretara, edo jarraian ez izanda hamar aldiz, huts-egite horiek behar bezala arrazoituta ez egonez gero, kide hori kargugabetu egin ahal izango da, eta erabakia hurrengo gobernu-batzordean berretsiko da.

- Aurrez aipatutako arrazoi horrengatik edo beste edozeinengatik batzarkide, idazkari, dekanorde edo diruzain karguren bat hutsik geratzen bada, estatutu hauetan adosten den bezala beteko da kargu hori.
- Teknologia berriak edo egokiak iruditutako baliabide teknologikoak erabiliz hartu ahal

izango dira zuzendaritza-batzordearen erabakiak.

- Batzorde iraunkorra tramite-kontuetarako edo larrialdi-kasuetarako bildu ahal izango da, eta egindako kudeaketen berri emango du gobernu-batzordearen hurrengo bileran.
- Batzordea da egindako kudeaketa-ekintza guztien erantzule. Elkargoaren baitan kontuak eskatzeari dagokionez, erantzukizun hori amaitutzat emango da behin zeregin hori utzi eta hiru hilabetera. Diruzainaren kasuan, haren erantzukizuna amaitzen da diruzain berriari balioak behar bezala entregatzen dizkionean, kontabilitatea itxita uzten duenean eta bere agintaldiko kontuak likidatu osteko lehen batzarrean kontuak aurkezten dituenean. Hori guztia batzordearen eta hango kideen jardueratik etor daitezkeen erantzukizun penal eta zibilei kalterik egin gabe.
- Lurralde-batzordeak hiru hilabete behin bilduko dira gutxienez, eta dekanuari beharrezko iruditzen zaionean edo kideek herenak eskatutakoan.

27. ARTIKULUA: KARGUA UZTEA ETA ORDEZKAPENA

- Elkargoko dekanook eta gobernu-batzordeko kideek arrazoi hauengatik utziko dituzte beren karguak:
 - a) Estatutuek kargurako eskatutako baldintzak betetzeko gaitasunik ez dutenean.
 - b) Kargurako izendatutako epea amaitzen denean.
 - c) Norberak uko egiten badu.
 - d) Arrazoirik eman gabe bost saiotara jarraian huts eginez gero edo jarraian izan ez diren hamar saiotara huts eginez gero.
 - e) Elkargoko kideen erdiek gehi batek zentsura-mozioa onartuz gero. Mozioa gobernu-batzordeari planteatu beharko zaio, gutxienez elkargokideen %10en babesarekin. Batzordeak ezohiko batzarrerako deia egingo du, hamabost eguneko epean, mozioaren gaineko erabakia hartzeko. Onartutzat joko da elkargokideek gehiengo absolutuz babesten badute. Eguneratutako errolda erabiliko da.
- Zenbait kargu hutsik geratzen direnean (dekanordea, idazkaria, diruzaina): batzarrean kargu hori nork bete erabaki arte, gobernu-organoak, behin-behinean, batzordekide bat izendatuko du postu horretarako.
- Dekanoak dimisioa ematen badu, gobernu-batzordeak izendatzen duen dekanordeak edo bere garaian izendatutakoak ordezkatu du. Dimisioa agintaldiaren erdia igaro baino lehen ematen badu dekanook, ordezkapena berretsi egin beharko du gobernu-batzordeak, gehiengo absolutuz, dimisioa eman eta hiru hilabeteko epean. Dimisioa agintaldiaren erdia baino gehiago igaro denean aurkeztuz gero, hauteskundeak antolatuko dira. Batzordeak izendatutako dekanoa hauteskunde horiek egin arte egongo da karguan.
- Gobernu-batzordeko kideen erdiek baino gehiagok ematen badute dimisioa, ezohiko batzarrerako deia egingo da, hauteskunde partzialak egiteko. Kasu guztietan, dimisioa eman ez duten kargudunek beren zereginak betetzen jarraituko dute, beste kargudun batzuk egon arte. Kargua uzten dutenak lurralde-ordezkariek badira, lurralde-batzordeek bildu beharko dute.

- Berrero ere hautagai izateagatik, gaixo egoteagatik edo saioetara bertaratzea eragozten dion beste arrazoiren batengatik dimisioa emanaz gero, hurrenkeran hurrena dagoen beharagoko kargudunari dagokio batzordekidea ordezkatzera, estatutu hauetan ezarritako hurrenkera errespetatuz.

29. ARTIKULUA: EZOHICO BATZAR NAGUSIA

- Gobernu-organoak idatziz dei egingo die elkargokideei ezohiko batzar nagusira, gutxienez, hura egin baino egutegiko 15 egun lehenago.
- Ezohiko batzar nagusia gobernu-batzordeari beharrezkoa iruditzen zaionean egin ahal izango da, edo elkargokideen %20k edo jarduleen %10ek eskatutakoan. Idatziz egin beharko zaio eskaera dekanuari, arrazoiak aipatuz. Bi hilabete baino lehen egin beharko da ezohiko batzar nagusia. Kasu guztietan, bertaratutako quorumak kideen %10eko tasa gainditu beharko du, eta presidentek eta idazkariak edo haien ordezkoez han egon beharko dute, baita kideen erdiak gehi batek ere.
- Ehuneko hori lortzen ez bada, batzordeak beste batzar bat antolatuko du 30 egun baino lehen. Batzar horretan ere ez bada lortzen gutxienezko kopururik, daudenekin egingo da batzarra, eta hartu beharreko erabakiak hartuko dira, gehiengoz. Ezohiko batzar nagusirako proposamenak batzarra egin baino hilabete lehenago aurkeztu beharko dira, eta elkargokideek haien berri izan beharko dute batzarra egin baino hamar egun lehenago. Premiazko kasuetan, batzordeak epe horiek laburtzeko aukera izango du. Bertaratutako bakoitzak gehienez beste bi elkargokideren botoa eskuordetu ahal izango du.
- Ezohiko batzar nagusiak Kazetarien Euskal Elkargoari, haren kideei edo kazetari-kolektiboari lotutako kontu erabakigarri guztiei buruzko erabakiak hartuko ditu, behar denean. Estatutu hauetan espresuki araututa ez dauden kontuetarako, eta lanbideari lotutako egoera edo eduki garrantzitsuren bati buruzko konturen bat landu behar izanez gero, ezohiko batzar nagusia antolatuko da, erabaki egokiak hartzeko, baita aldi berean ohiko batzarren batean lantzen bada gai berbera ere.
- Ezohiko batzar nagusiak dekanorekin, gobernu-batzordearen edo gobernu-batzordeko kide batzuen aurkako zentsura-mozioa landu behar duenean, elkargokideen erdiak gehi bik bertaratu beharko dute. Mozioa eguneko gai-zerrendan sartu ahal izateko, elkargokideen %25en sinadura beharko da gutxienez, eta kide horiek hiru hilabeteko antzinatasuna izan beharko dute elkargoan. Eskaeran argi eta garbi azaldu beharko dira mozioa eskatzeko arrazoiak. Akordioa gehiengo osoz hartuko da.

30. ARTIKULUA: LURRALDE BATZORDEAK

Lurralde historiko bakoitzean izena emandako elkargokideek eta elkargoko dekanok osatzen dituzte lurralde horietako batzarrak. Gobernu-batzordeak erabakitakoan, batzarreko ordezkariak eskatutakoan edo elkargoan izena emanda duten lurralde horretako kideen %20ek eskatutakoan bilduko dira. Azken horiek idatziz egin beharko diote eskaera gobernu-batzordeari.

Lurralde historikoetako batzarrek zeregin hauek dituzte: lurralde-batzorderako ordezkaria hautatzea; mugape horretako elkargokideen arazo, eskaera eta proposamenak eztabaidatzea; eta ordezkariaren bidez gobernu-batzordeari helaraziko zaizkion akordioak egitea.

6. KAPITULUA: ARAUDI EKONOMIKOA

LEHEN ATALA: ELKARGOAREN BALIABIDEAK

31. ARTIKULUA: BALIABIDE ARRUNTAK

Elkargoko organoek arduraz kudeatu beharko dituzte baliabide arrunt hauek:

- Kazetarien Euskal Elkargoaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideek sortzen dituzten etekin ekonomikoak.
- Elkargokide izatearen eskubideak.
- Ziurtagiriak eta karnetak igortzearen eskubideak.
- Gobernu-organoei egindako edo utzitako txosten, azterketa edo beste zerbitzu ordainduekin lortutako eskubideak. Elkargoak egindako txostenak ez dira elkargokideenak izango.
- Elkargokideen kuota finkoak eta jar daitezkeen aparteko kuotak.
- Elkargokideei eskainitako zerbitzu jakin batzuei ezarri ahal izango zaizkien kuotaz aparteko osagarriak.
- Legez ezarritako beste edozein kontzeptu (dagokion organoak onartu beharko du).

32. ARTIKULUA: APARTEKO BALIABIDEAK

Aparteko baliabideak dira hauek, eta gobernu-organoei dagokie kudeatzea:

- Elkargoaren onurarako diren edo elkargoarenak diren diru-laguntza, dohaintza eta herentziak.
- Kazetarien Euskal Elkargoaren ondareko ondasunak saltzetik ateratakoak.
- Kazetarien Euskal Elkargoaren zorretik eratorritako diru sarrerak, batzordean edo batzar nagusian behar bezala onartuta.
- Aldi baterako edo betirako errenta edo ondasun batzuk administratzeko enkargua jasoz gero, horren truke Kazetarien Euskal Elkargoari dagozkion kopuruak.
- Legez ezarritako beste edozein baliabide edo ondasun.
- Gobernu-batzordeak finkatuko du aldi behingo kuoten zenbatekoa, eta batzar nagusiak berretsiko du erabakia.

Aparteko kuotak ere batzar nagusiak onartu beharko ditu.

33. ARTIKULUA: ONDAREA

- Gobernu-batzordeak administratuko du Kazetarien Euskal Elkargoaren ondarea.

- Gobernu-batzordeak hartuko ditu ondarea gordetzeari eta zaintzeari buruzko erabakiak.
- Kazetarien Euskal Elkargoaren ondarea osatzen duten ondasunak inbentario batean jasoko dira. Gobernu-batzordeko diruzainak egingo du inbentarioa, eta haren egitura nolakoa izango den eta zer datu bilduko dituen batzordeak erabakiko du.

34. ARTIKULUA: DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

Kazetarien Euskal Elkargoa desegiteko, kideen hiru laurdenen oniritzia beharko da erabaki hori hartzeko deitutako ezohiko batzarrean.

Erabakia biltzen duen akordioan adieraziko dira ondarea likidatzeari, eskubide eta betebeharrei eta ahalmen eta eskumen administratiboen desegite edo eteteari buruzko zehaztasunak.

35. ARTIKULUA: DESEGINEZ GERO, ZER EGIN ONDASUNEKIN

Kazetarien Euskal Elkargoa desegiten bada, likidazio-batzorde bat izendatuko da. Zorrak ordaindu ostean ondasun edo baloreen bat geratuz gero, batzorde horrek elkargoa ordezkatzeko duen erakundeari esleituko dizkio. Bestela, lurralde barruko kazetari-erakunde ongileei edo gizarte-aurreikuspeneko erakundeei esleituko dizkie, edo bestela, azkenik, saldu egingo da geratutako ondarea eta elkargokideen artean banatuko da, zati alikuotetan.

BIGARREN ATALA: AURREKONTUA

36. ARTIKULUA: URTEKO AURREKONTUA

Kazetarien Euskal Elkargoaren aurrekontuak zifra bidez adieraziko du, orotara eta sistematikoki, zenbateko gastua egin behar duten organoek, baita aldi horretan zer baliabide ekonomiko jasotzea aurreikusten den ere.

37. ARTIKULUA: AURREKONTUAREN URTEALDIA

Aurrekontuaren urtealdia urte naturalarekin etorriko da bat. Aurrekontuan kontuan hartuko dira urtealdian jaso beharreko diru-sarrera guztiak eta ordainketa-obligazio guztiak (gastu edo inbertsioei lotutakoak).

38. ARTIKULUA: AURREKONTUAREN OSAKETA ETA EDUKIA

- Organoen aurrekontua bi zatitan banatuko da: alde batetik, elkargoaren jarduerari lotutakoak bilduko dira, eta bestetik, ondare eta eskubideen erabilerari lotutakoak. Aurrekontu bakoitzean hauek agertuko dira:
 - a) Urte horretan egin beharreko gastuak.
 - b) Urte horretan egin beharreko inbertsioak.
 - c) Urte horretan izan beharreko diru-sarrerak.

- Aurrekontuek orekatuak izan behar dute gastu eta baliabide ekonomiko aldetik. Behar bezala arrazoitutako eta bermatutako salbuespen-kasuetan soilik joko da zorpetzera, eta batzordearen eta batzar nagusiaren oniritzia beharko da.

39. ARTIKULUA: AURREKONTUAREN EGITURA

- Gobernu-batzordeak erabakiko du zein izango den aurrekontuaren egitura; horretarako, zerbitzuen antolaketa eta aurreikusitako mugimendu ekonomikoen izaera eta helburuak hartuko ditu kontuan.
- Hiru taldetan sailkatuko dira kredituak:
 - a) Organikoa: zerbitzuen organigramaren arabera bilduko ditu kredituak.
 - b) Funtzionala: egin beharreko jarduerak kontuan hartuta banatuko ditu kredituak.
 - c) Ekonomikoa: bereizi egingo ditu gastu arruntak, inbertsio errealak eta finantza-aktibo eta pasiboen aldakuntzak. Inbertsioak, edozein zerbitzuri dagozkionak izanda ere, aurrekontu orokorrean agertuko dira.
- Sarreretan, bereizi egingo dira estatutu hauetako 28. eta 29. artikuluetan zehaztutako kontzeptuak.

40. ARTIKULUA: AURREKONTUAK PRESTATZEKO ETA ONARTZEKO JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

- Diruzainak Kazetarien Euskal Elkargoaren aurrekontuen oinarriak, edukia eta irizpideak ezarriko ditu.
- Gobernu-batzordeak aurrekontu-proiektua prestatuko du, beharrezkoak eta egokiak iruditzen zaizkion diru-sarrerak eta gastuak kontuan hartuta.
- Gobernu-batzordeak prestatutako proiektuaren arabera organo bakoitzari zer aurrekontu dagokion jakinaraziko zaio batzar nagusiari, aurrekontuari dagokion aurreko urtea amaitu baino lehen. Baldin eta lege aldetik akatsik ikusten ez badu, batzar nagusiak formalki onartuko du Kazetarien Euskal Elkargoaren aurrekontua. Dokumentu hauek egon behar dute aurrekontuari erantsita:
 - a) Edukiak eta indarrean dagoen aurrekontuarekiko aldakuntza nagusiak biltzen dituen azalpen-memoria bat.
 - b) Indarrean dagoen aurrekontua diru-sarrera eta gastu aldetik zer egoeratan dagoen azaltzen duen dokumentua.
 - c) Txosten ekonomiko-finantzieroa.

41. ARTIKULUA: AURREKONTUAREN LUZAPENA

- Ohiko batzar nagusiak ez badu onartzen Kazetarien Euskal Elkargoaren aurrekontua,

ezohiko batzar nagusira dei egingo du gobernu-batzordeak. Batzar horrek ez badu estatutuek finkatutako quoruma biltzen ez lehen eta ez bigarren deialdian, gobernu-batzordeak berak erabakiko du zer egin.

- Urtealdiko lehen egunean aurrekontua oraindik onartu gabe egonez gero, aurreko urtekoa luzatuko da berria onartu artean, irizpide hauek jarraituz:
 - a) Gastuen luzapena hilabete naturaleka egingo da, eta kredituen %50ari dagokion hamabirenetan. Pertsonalari, funtzionamendu arruntari eta interes eta amortizazioei dagozkien gastuak izango dira salbuespena, horiek osoki luzatuko dira.
 - b) Luzapenak ez die eragingo luzatzen diren aurrekontuetan agortutako partidei dagozkien gastuetarako kredituei.

42. ARTIKULUA: PARTIDEN ARTEKO TRANSFERENTZIAK

Aurrekontuaren urtealdian zehar, gobernu-batzordeak partida batzuetatik besteetara transferentziak egiteko aukera izango du. Hau izango da salbuespena: transferentzia kapital-partidatik gastu-partidara egin nahi izanez gero, ezohiko batzar nagusira deitu beharko da erabakiari oniritzia emateko.

43. ARTIKULUA: PARTIDEN PRESTAKETA ETA TRANSFERENTZIAK

Aurrekontuaren urtealdian zehar, aurrekontu-partida berriak prestatu ahal izango ditu gobernu-batzordeak, edo haien zuzkidurak handitu, baldin eta baldintza hauek betez gero:

- Bi gastu-partidaren edo gehiagoren arteko transferentziak izatea.
- Bi kapital-partida edo gehiagoren arteko transferentziak izatea.
- Gastu-partida berri hori, inbertsio hori edo lehendik zegoen zuzkiduraren hedapen hori urtealdi horretarako aurreikusi gabe zegoen diru-sarreraren bidez finantzatzea oso-osorik. Partida berri hori ezingo da prestatu edo handitu behar adina funts izango dela erabat ziurtatu arte. Gainerako kasuetan, gobernu-batzordeak ezohiko batzar nagusirako deia egin beharko du.

44. ARTIKULUA: URTE BAT BAINO GEHIAGORAKO GASTUAK

Aukera egongo da urte bat baino gehiagoko iraupena izango duten gastuak onartzeko: kasu horietan, gastua onartzen den urtean bertan hasi beharko da hura gauzatzen, eta aurrekontuetan sartuko da gastuari dagokion urte horretako zatia.

45. ARTIKULUA: LIKIDAZIOA

- Urtero, ekainaren 30aren aurretik, ohiko batzar orokor bat egingo du Kazetarien Euskal Elkargoak. Gobernu-batzordeak aurrekontuaren likidazioa aurkeztuko du, baita balantzea eta diru-sarrerei eta gastuei dagozkien kontu bateratuak ere (aurreko urteko abenduaren 31koak). Dokumentazioarekin batera, dagokion memoria ekonomikoa ere aurkeztuko da.

- Elkargokideek aukera izango dute urte ekonomikoari buruzko edozein eskaera zehatz egiteko. Gutxienez, batzarraren data baino 48 ordu lehenago egin beharko da eskaera, eta erroldan dauden elkargokideen %5en izenean.
- Batzarrean, defizitarekin edo superabitarekin zer egin proposatuko du gobernu-batzordeak (baldin eta egonez gero), puntu hauei jarraituz.
 - a) Egoera kontsolidatua osatzeko, diruzainak likidazio kontsolidatua aurkeztuko du, baita balantzea eta diru-sarreraren eta gastuen kontuak ere (haiek ere kontsolidatuak). Hain zuzen, gobernu-batzordeari aurkeztuko dizkio, eta hark, aztertu ostean, auditatzeko eskatuko du. Ondoren, ohiko batzar nagusiari aurkeztuko dizkio.
 - b) Baldin eta aurrekontua likidatutakoan superabita geratuz gero, zera egingo da superabitat horrekin:
 - Superabita egin beharreko gastuak finantzatzeko erabiliko da, gastua likidatzen den urteko aurrekontura kargatuz.
 - Superabita likidatzen den aurrekontura diru-sarrera izatera pasako da, eta beraz, korporazioaren gizarte-funtsaren saldora.
 - c) Defizita izanez gero, gizarte-funtsetik kargatuko da.

46. ARTIKULUA: KREDITU ERAGIKETAK

Gobernu-batzordeak eskubidea du beharrezko iruditzen zaizkio kreditu-operazioak egiteko, baldin eta urte horretako abenduaren 31a baino lehen eginez gero. Epe luzeagorako eragiketaren bat egin nahi izanez gero, kredituaren kapitala zertarako den ikusiko da, eta organo edo zerbitzu horren urteko aurrekontuaren %25 baino handiagoa bada, ezohiko batzar nagusirako dei egin beharko du gobernu-batzordeak.

47. ARTIKULUA: ONDAREAREN USTIAPENA

Aurreko artikuluetan ezarritako antolaketari dagokionez, kanpoan geratzen dira Kazetarien Euskal Elkargoaren jarduera propioari ez dagozkion eragiketa ekonomiko guztiak. Hemen sartu beharreko jarduerak, eta elkargoaren ondarearen ustiapenari erreferentzia egiten diotenak, geroagoko araudi batean arautuko dira. Ezohiko batzar nagusian onartu beharko da araudi hori.

HIRUGARREN ATALA: ELKARGOAREN KUDEAKETA EKONOMIKOAREN GAINEKO KONTROLA

48. ARTIKULUA: ESKU HARTZEA

- Zeregin hauek egongo dira esku-hartzeari dagokionez:
 - a) Diru-sarrerak edo gastuak baimentzeko ekintza eta dokumentuen aurretiazko esku-hartzea.

b) Esku-hartze formala ordainketetan.

- Ez da aurretiazko esku-hartzerik egingo inbentariagarria ez den materialaren gastuekin, ezta aldizkakoak edo hurrenkeran egin beharrekoak diren gastuekin ere (gastu horri dagokion esku-hartzea kontratuaren edo egitasmoaren hasieran egingo da).
- Gobernu-batzordeak aukera izango du administrazio-zerbitzuei eskuordetzeko inbentariagarria ez den materialaren gaineko esku-hartzeak eta ordainketak, baita aldizkakoak edo hurrenkeran egin beharrekoak diren gastuenak ere, edo, oro har, gobernu-batzordeak unean-unean finkatutako zenbateko jakin bateko eragiketa ekonomikoenak. Erantzukizuna gobernu-batzordearena da. Beharrezkoa bada, eskuordetze hori notarioaren aurrean egingo da. Zereginaren ardura duen pertsonak edo pertsonak aldi berean beren kudeaketaren berri eman beharko diote diruzainari. Jasotako dokumentazioa aztertuko du diruzainak, eta ondoren, informazio horren berri emango dio gobernu-batzordeari.

49. ARTIKULUA: KONTABILITATEA

- Zuzenbide publikoko korporazioa den heinean, ordenamendu juridikoak elkargo profesionaleri ezarritako kontabilitate-erregimenaren mende dago Kazetarien Euskal Elkargoa. Kontabilitate Plan Orokorrean ageri diren liburu, kontu nahiz gainerako aginduak aplikatuko dira.
- Kontabilitatea sendotu egingo da, Kazetarien Euskal Elkargoaren baitako organoen eta ustiapen ekonomikoari dagozkien kontabilitateak ere bilduz.
- Urtero, balantze bat eta diru-sarreraren eta gastuen arteko kontuen egoerari buruzko txostena prestatuko dira, aurrekontuaren likidazioarekin batera batzar nagusiari aurkezteko. Balantze eta diru-sarreraren eta gastuen arteko kontu horietan, zehaztasunez agertu beharko dute hauek guztiak: aktiboek, pasiboek, gastuek, diru-sarrerak eta Kazetarien Euskal Elkargoari eragiten dieten gainerako kontingentziek. Diru-sarreraren eta gastuen sailkapena aurrekontuetako berbera izango da.

50. ARTIKULUA: AUDITORETZA

- Urtero, Kazetarien Euskal Elkargoaren egoera kontsolidatua auditatzeko eskatuko du gobernu-batzordeak, aurreko urteko abenduaren 31tik hasita. Auditatutako kontu horiek onartu beharko ditu batzarrak.
- Ez bada auditorerik izendatu, gobernu-batzordeak auditore bat izendatu beharko du aurreko urteko kontuak ikuskatzeko, elkargokideen %10ek onetsitako eskaeraz eta elkargoaren funtsen kargura. Berrikusi beharreko urtea itxi eta hurrengo hilabetea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da eskaera hori.

LAUGARREN ATALA: ELKARGOKO LANGILEAK

51. ARTIKULUA: KONTRATUAK ETA EGITEKOAK

Gobernu-batzordeak kontratatuko ditu administrazio-lanetarako langileak, eta zein egiteko izango dituzten jakinaraziko die. Urte bakoitzeko aurrekontuetan sartuko dira langileen organigrama,

zereginak eta ordainsariak, eta onespena jaso beharko dute.

7. KAPITULUA: HAUTESKUNDEAK

52. ARTIKULUA: HAUTESKUNDE SISTEMA, PROZEDURA ETA ERREGIMEN OROKORRA

Lau urtean behin egingo dira hauteskundeak, dekanoa, gobernu-batzordeko kargudunak eta lurralde-batzordeko ordezkariak hautatzeko; horretarako, estatutu hauetan bildutako hauteskunde-araudian ezarritako prozedurari jarraituko zaio. Bozak egin baino bi hilabete lehenago egingo du deialdia gobernu-batzordeak. Lau urterako izendatuko dira kargudunak, eta nahi adina alditan izan ahalko dira hautatuak, dekanoa salbu, hark gehienez bi agintaldi egin ahal izango baititu.

Zerrenda irekiaren sistema erabiliko da gobernu-batzordeko kide bakoitza aukeratzeko. Ordezkaritza proportzionaleko hauskunde-sistemaren aldagai bat da hori: hautesleek hautagaiak aukeratzeko dituzte zerrenda oso bat hautatu beharrik gabe, hau da, jasotako boto indibidual kopurua kontuan hartuta erabakitzen dira elkargoko ardura-postuak.

Hauteskunde-deialdi bat dagoenean, hautagaiak zerrenda osotan aurkezten dira, hau da, gobernu-batzordeko kargu guztietarako proposatzen dira hautagaiak zerrendetan.

Kargu guztietarako zerrenda horietan, hautagai-kopuruak ezin du izan hautatu beharreko ordezkari-kopurua baino handiagoa (dekanoa, dekanordea, idazkaria, diruzaina eta sei batzordekide).

Zerrenda bereko hautagai guztiei eman ahal izango zaie botoa, hurrenkerari eragin gabe, guztiek boto bana jasoko baitute. Zerrenda ezberdinetako hautagaiei ere eman ahal izango zaie botoa.

Hauteskunde-batzordeak egiaztatzen duenean aurkeztutako hautagaiek estatutuetan finkatutako lege-baldintzak betetzen dituztela, hautagaitzak onartuko dira, eta boto-paper bat prestatuko da aurkeztutako hautagaitza guztiekin, zozketa bidez zehaztutako hurrenkeran. Hauteskunde-egunean, boto-emaileak kargu bakoitzerako zein hautagai izendatu nahi duen adierazi beharko du.

53. ARTIKULUA: HAUTAGARRITASUNA ETA HAUTESLE IZATEA

- Eskubide osoko elkargokide guztiak izango dira hautesle, baina hauteskundeetarako deia egiten denean hiru hilabete baino gehiagoko antzinatasuna izan behar dute, eta elkargokide izateak dituen betebeharrak eguneratuta eduki behar dituzte.
- Hautatutako kargudunek ez dute ordainsaririk jasoko; era berean, kargu hori betetzea ez da gastu bat izango haientzat. Dekanotzarako hautagai izateko, beharrezkoa izango da lanbidean aritzen den elkargokidea izatea (2/1974 Profesionalen Elkargoei Buruzko Espainiako Legearen 7/1 artikulua) eta hauteskundetarako deialdia egiten denean gutxienez 4 urteko antzinatasuna izatea elkargokide moduan.

54. ARTIKULUA: HAUTATUA IZATEKO EZINTASUNA

Hauek ezingo dute hautatuak izan:

- Aurreko artikuluan adierazitako baldintzak betetzen ez dituztenek.

- Gobernu-batzordeko kide diren hautagaiek, baldin eta aurrez, hauteskunde-prozesuan, kargu horretarako dimisioa ematen ez badute. Baldintza hori ez da indarrean egongo aurreneko hauteskundeetan.
- Elkargoaren zehapena jaso dutenek azken bi urteetan zenbait diziplina-falta arin egiteagatik, azken lau urteetan zenbait diziplina falta larri egiteagatik, edo azken sei urteetan zenbait diziplina-falta oso larri egiteagatik.
- Elkargoko kuotak ordaindu gabe dituztenek. Ordainketak eguneratuta izateak esan nahi du, gutxienez, hauteskundeak egin aurreko urteko kuota guztiak ordainduta izatea.
- Hauteskundeak egin aurreko 8 urteetan etenik gabe gobernu-batzordean egon direnek. Inork ezingo du bi agintaldi baino gehiagotan jarraian aurkeztu hautagai. Dekanotzara aurkezten direnak dira salbuespena (kargu hori ere gehienez 8 urtean bete ahal izango da); izan ere, aurreko bi agintaldietan gobernu-batzordean egon diren kideek ere badute kargu horretarako aurkezteko aukera.

55. ARTIKULUA: DEIALDIA ETA HAUTESKUNDE PROZESUA

- Gobernu-batzordeak egingo du hauteskundeetarako deialdia, hauteskunde-eguna baino bi hilabete lehenago. Deialdia egin eta hurrengo bost egunak igaro aurretik, publikoki erakutsi beharko du deialdia idazkariak, informazio hau emateko:
 - a) Zein diren hautatu beharreko karguak eta hautagai izateko bete beharreko antzintasun eta gainerako baldintzak.
 - b) Hauteskunde-prozesuaren egutegia: zein egun, ordu eta lekutan egingo diren hauteskundeak, eta zer ordutan amaituko den botoa emateko aukera.
 - c) Botoa posta bidez emateko baldintzak zien diren.
 - d) Errolda (alfabetoko ordenan) eta erreklamazio-epeak nahiz erreklamazioak egiteko prozedura.
 - e) Izendatutako hauteskunde-batzordea. Batzorde hori hiru kidek osatuko dute, hain zuzen, agintaldia amaitzera doan gobernu-batzordeko hiru kidek, deitutako hauteskundeetan hautagai ez direnek. Ez bada posible, antzintasun handieneko elkargokideak, elkargokide gazteenak eta zaharrenak osatuko dute batzordea.
 - f) Gobernu-batzordea eta lurralde-batzordea eratzeko prozedura eta data.
- Dekano izateko hautagai aurkezteko, elkargokideen %5en babes beharko da gutxienez. Baldintza hori ez da indarrean egongo aurreneko hauteskundeetan. Hautagai-zerrenda bakarra aurkeztuz gero, ez da hauteskundeak egin beharrik egongo, automatikoki izendatuko da. Gobernu-batzordeak beteko ditu hautagaitza horretan ezarritako karguak.
- Aurreikusitako epean ez bada inor aurkezten dekanotzarako, beste epe bat irekiko da, aurrenekoaren iraupen berdinekoa. Kasu horretan ere inor ez aurkeztuz gero, ezohiko batzar nagusi bat antolatu beharko da, eta han erabakiko da zer egin egoera bideratzeko.
- Dekanoak edo gobernu-batzordeko beste kideren batek hautagaitza aurkeztu nahi izanez gero, aurrez, dimisioa eman beharko du betetzen ari den kargu horretan, eta kide berriak kargu hori hartu artean, honela egingo dira ordezkapenak: dekanoa hark izendatutako

dekanordeak ordezkatu du, edo hura ere hauteskundeetara aurkezten bada, elkargoko idazkariak, eta horrela, hurrenez hurren. Baldintza hori ez da indarrean egongo Kazetarien Euskal Elkargoaren aurreneko hauteskundeetan.

- Elkargokide bakoitza, gehienez, hautagaitza batean aurkeztuko da.

56. ARTIKULUA: HAUTAGAI IZATEA ETA IZENDAPENA

Gobernu-batzordeak, hautagai aurkezteko epea amaitu eta hamar egun baino lehen, hautagai izendatuko ditu eskatutako baldintzak betetzen dituztenak. Ondoren, elkargoaren iragarki-tauletan argitaratuko ditu zerrendak, eta interesatuei ere jakinaraziko die.

57. ARTIKULUA: HAUTATU BEHARREKO KARGUAK

Huteskundeetako emaitzen arabera osatuko dira elkargoko zuzendaritza-organoak. Kargu guztiek lau urteko iraupena izango dute. Kargudun guztiek izango dute berriro hautatuak izateko aukera, estatutu hauetan bildutako salbuespenekin. Batzar nagusiak aukeratuko ditu dekanoa eta gobernu-batzordeko kideak, boto sekretu eta libre bidez.

58. ARTIKULUA: HAUTAGAI ZERRENDAREN AURKEZPENA

Gobernu-batzordeari aurkeztu beharko zaizkio gobernu-organoetarako hautagaiak, kide guztien sinadurarekin eta berariazko baimenarekin. Batzorde horri hautagaiak aurkezteko epea hauteskunde-data baino 20 egun lehenago amaituko da gehienez.

59. ARTIKULUA: BOZKETAK

- Botoa zuzena eta sekretua izango da. Elkargokide guztiek eskubide berbera dute, bakoitzak boto bat, kontsiderazio demokratikoaren arabera herritar bakoitzak baitauka sufragio-eskubidea, eta eskubide hori pertsonala baita. Botoa eman aurretik, identifikatu egin beharko dute elkargokideek. Hauteskunde-araudia eta prozedura kontuan hartuta, hautagaiek ikuskatzaileak jarri ahal izango dituzte hauteskunde-prozesurako.
- Hauteskundeak egiteko, hauteskunde-mahaia jarriko da, eta zozketa bidez ateratako hiru elkargokide egongo dira han. Horietako zaharrena izango da presidentea, eta gazteena, idazkaria. Hautagai bakoitzak elkargokide bat edo batzuk izendatu ahal izango hauteskundeetan ikuskaritza-lanak egiteko.
- Aurrez gobernu-batzordeak iragarritako egun eta orduetan egingo da bozketa. Hauteskunde-mahaia osatutakoan, presidenteak bozketa hasi dela jakinaraziko du, eta noiz amaitzea aurreikusten den ere bai, deialdian aurrez ezarritakoarekin bat etorritik.
- Erroldako elkargokide guztiek dute botoa emateko eskubidea. Aukera egongo da botoa postaz emateko, arau hauek betez:
 - a) Gutun-azal batean, kanpoko aldean, deialdiaren berri emango da: "Kazetarien Euskal Elkargoko dekanoren eta gobernu-batzordearen aukeraketa". Behar bezala itxiko da, eta gutun-azal hori eta nortasun-agiriaren edo elkargokide karnetaren kopia beste gutun-azal batean sartuko dira. Gutun-azalak hauteskunde-mahaira iritsi beharko du

hauteskunde-eguneko eguerdiko hamabiak baino lehen, sinesgarritasuna ematen duen edozein bitarteko erabiliz.

- b) Hauteskunde-aldi osoan zehar jasoko ditu idazkariak postaz bidalitako botoak. Botoa duten gutun-azalak behar bezala itxita egongo dira, eta beste gutun-azal batean sartuta bidaliko dira. Bigarren horretan agertuko dira boto-emailearen izena eta sinadura, eta horri esker izango da posible nortasuna egiaztatzea eta botoa isilpean mantentzea. Idazkariak egiaztatuko du boto-emailea erroldan dagoela eta sinadura harena dela. Ontzat emandako gutun-azalak idazkariak gordeko ditu hauteskunde-mahaiaren esku utzi arte. Boto-emailearen izena eta sinadura dituzten gutun-azal horietan ongi ikusteko moduan jarriko du: "Posta bidezko botoa", "Dekanoa eta gobernu-batzordea aukeratzeko hauteskundeak". Nulutzat joko dira erroldan ez dauden elkargokideek postaz emandako botoak, identifikatu ezin direnak eta hauteskunde-batzordearen ustez sinadura zuzena ez dutenak.
- c) Botoa zuzenean emateko aukera amaitzen denean, boto-kutxan sartuko dira postaz jasotako botoak. Baliogabetzat joko dira boto bikoitzak, arau hauek betetzen ez dituztenak eta aurrez zuzenean botoa eman duten elkargokideenak.
- d) Boto-zenbaketa publikoa izango da, eta zuzenean egingo da, ahots gora; hau da, boto-paperak kutxatik atera eta irakurri egingo dira banan bana. Hauteskunde-mahaiko presidenteak eta batzordekideek egiaztatuko dute emaitza.
- e) Behin boto guztiak zenbatutakoan, jasotako boto-kopuruaren arabera sailkatuko dira hautagaiak, eta gobernu-batzordeko karguak esleituko dira. Dekanoa: kategoria horretan boto gehien jaso dituen pertsona. Dekanordea: kategoria horretan boto gehien jaso dituen pertsona. Berdin jokatu da idazkariarekin eta diruzainarekin ere. Batzordekideen kasuan, boto gehien jaso dituzten pertsonak hautatuko dira, hurrenkera errespetatuz.

Hala, osatuta geratuko da Kazetarien Euskal Elkargoaren gobernu-batzordearen zerrenda.

60. ARTIKULUA: HAUTESKUNDEEI LOTUTAKO ERREKLAMAZIOAK

- Elkargoko zuzendaritza-organoen hauteskundeek harira gertatutako edozein irregulartasunen aurrean (estatutu hauetan berariaz araututakoetan salbu) edo hauteskunde-mahaiaren ekintzen aurrean, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango du edozein elkargokidek. Bost eguneko epean emango da ebazpena.
- Aurreikusi gabeko kasuetan, indarrean dagoen Administrazio Prozedurako Legearen arabera bideratuko dira errekurtsioak. Bide korporatiboa agortutakoan, administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren bidea erabili beharko da, dagokion epaitegian eta bi hilabeteko epean.

8. KAPITULUA: ELKARGOAREN EGITASMOEN ERREGIMEN JURIDIKOA: JAKINARAZPENAK, INPUGNAZIOAK ETA ZIGORRAK

61. ARTIKULUA: APLIKATU BEHARREKO ZUZENBIDEA

- Gobernu-batzordeak, lurralde-batzordeak eta batzar nagusiak beren eskumenen arabera egiten dituzten akordioak administrazio-zuzenbidearen mende egongo dira. Bide

administratiboa amaitutzat ematen duten ekintzak berehala bete beharrekoak izango dira, salbuespen hauekin: akordioak berak edo hura hartzeko arauak propio beste zer bait esatea, edo bestela, diziiplina-gaiei buruzkoa izatea.

- Funtzio administratiboei lotutako akordioak ez direnean, dagokion legediaren mende egongo dira, eta aukera egongo da haiek inpugnatzeko edo erreklamazioak jartzeko. Era berean, akordioaren izaerari lotutako erantzukizunak eskatu ahal izango dira eskumena duen jurisdikzioaren aurrean.
- Estatutu hauetan aipatzen diren epeak, egunetan adierazitakoak, lanegunetan daude, propio beste zer bait esaten ez bada behintzat.

62. ARTIKULUA: JAKINARAZPENAK

- Elkargokideei jakinarazi egin beharko zaizkie indibidualki, modu zuzenean eta pertsonalean eragiten dieten kontuak.
- Jakinarazpenak modu honetan egin beharko dira: jasoko direla, zein datatan, nork jasoko dituen eta ebazpenaren eduki osoa jaso izanaren ziurtasuna emango duten baliabideak erabiliz.
- Jakinarazpenak pertsonalki egiteko aukerarik ez egonez gero, araudi honetan aurreikusitako edozein modutan egin ahal izango dira jakinarazpen horiek: faxez edo bidali izana ziurtatzeko aukera ematen duen edozein bitarteko telematiko erabiliz. Hori ere ez izanez gero posible, elkargoko iragarki-taulan argitaratuko dira jakinarazpenak, eta jakinarazpenaren ondorioak indarrean egongo dira argitaratu eta hurrengo hamabost egunetan.
- Interes orokorreko akordioei posta elektronikoko bidez edo zirkular bidez emango zaie publizitatea.

63. ARTIKULUA: ELKARGOAREN EKINTZEN AURKAKO ERREKURTSOAK

- Aukera egongo da errekurtsoa jartzeko gobernu-batzordeak edo batzar nagusiak hartutako zuzenbide administratiboaren mendeko behin betiko akordioei, indarrean dagoen administrazio-prozedura erkideari buruzko legeak dioenari kasu eginez.
- Gobernu-batzordeak ere izango du batzar nagusiak hartutako akordioen aurkako errekurtsoak jartzeko aukera. Dagokion erakundean jarri beharko du errekurtso hori, baldin eta akordioa zuzenbide osoz deuseza edo elkargoaren interesentzat erabat kaltegarria dela iruditzen bazaio. Akordioa eteteko eskatu ahal izango du.

64. ARTIKULUA: ELKARGOAREN AKORDIOAK ETETEA

Gobernu-batzordeak edo batzar nagusiak hartutako akordioak eteteko, administrazio-prozedura arruntean ezarritako araudiari egingo zaio jaramon.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengo xedapen iragankorra

Kazetarien Euskal Elkargoa sortzeari buruzko ekainaren 28ko 17/2012 Legeko bigarren xedapen iragankorrak ezartzen duenez, Asociación Vasca de Periodistas - Euskal Kazetarien Elkarteko zuzendaritza-batzordea da, kudeaketa-batzorde gisa jokatzuz, Kazetarien Euskal Elkargoaren estatutuak onartzeko izendatutako organoa. Elkargoa osatzeko batzarrerako deia ere hark egingo du, deialdia egiteko modua eta garapen-prozedura zehaztuz.

Kudeaketa-batzordea arduratuko da elkargokideen errolda egiteaz ere.

Bigarren xedapen iragankorra

Elkargoaren sorreraz arduratuko den batzordeak egiteko hauek izango ditu:

- Elkargoaren behin betiko estatutak onartzea.
- Elkargoko organoetako karguak zein pertsonak beteko dizten aukeratzea.

Hirugarren xedapen iragankorra

Aurreko bi xedapenetan bildutako egitekoak ondo garatzeko, elkargoaren kudeaketa-batzordeak atal hauek kontuan hartuta gobernatuko du:

- Elkargoaren batzar eratzaillea.
 - a) Batzar eratzaillea da elkargoa formalki eratzeko, behin betiko estatutuak onartzeko eta elkargoko gobernu-organoetako kideak hautatzeko organo burujabea. Han, batzorde eratzailleak egindako erroldan dauden elkargokide guztiek hartu dezakete parte.
 - b) Batzorde eratzailleko presidentetza duen pertsona titularra izango da batzar eratzailleko burua, gainerako kideekin batera. Hark zuzenduko du saioa, hitz egiteko txandak moderatuz eta eztabaidak eta bozketak ordenatuz.
 - c) Batzorde eratzailleko idazkaria izango da idazkaria, eta saioaren akta egingo du. Presidentetzaren oniritzia behar du aktak.
 - d) Batzarrean parte hartu ahal izateko, beharrezkoa da erroldan egotea eta kuotak ordainduta izatea. Deialdia EHAA-n argitaratu eta hilabetera itxiko da errolda.
 - e) Erroldan daudenen erdiak gehi bateko parte-hartzea izanez gero, batzarrean eraketa baliokotzat joko da lehen deialdian; bigarren deialdia handik ordu erdira egingo da, eta bertaratutako erroldako pertsona-kopurua edozein izanda ere, ontzat joko da. Alabaina, beharrezkoa izango da presidentea eta idazkaria han egotea, edo bestela, haien ordezkioak han egotea.
 - f) Akordioak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, igorritako boto baliodunen erdiak gehi bat. Gehiengoa kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko boto nuluak eta boto zuriak.
 - g) Botoa eman ahal izateko, beharrezkoa izango da batzar eratzaileraren joatea.
- Parte-hartzea.
 - a) Elkargokide guztiek parte hartu ahal izango dute batzar eratzaileran, baldin eta "a" ataleko 4. puntuko baldintzak betetzen badituzte. Erroldaren behin betiko zerrenda

AVP-EKEren egoitzan jarriko da errolda itxi eta hurrengo egunean.

- b) Zerrenda horri lotutako erreklamazioen bat egin nahi dutenek hamar eguneko epea izango dute, zerrenda argitaratzen den egunetik hasita. Erreklamazioak idatziz igorriko zaizkio kudeaketa-batzordeari, eta hark gehienez ere 72 orduko epean emango du ebazpena (lanegunetako orduak).
- Batzar eratzaillearen egitekoak.
 - a) Elkargoaren behin betiko estatutuak onartzea.
 - b) Elkargoko gobernu-organoetako karguak beteko dituzten pertsonak aukeratzea.

AMAIERAKO XEDAPENAK

LEHENA.- Estatutuetako aurreko aginduek, Konstituzioarekin eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuarekin bat etorritz, ez diete kalterik egingo gaiari buruz autonomia-erkidegoko organoek legez ezarritakoei, han aplikagarri diren estatuko lege orokorrei eta haren autonomia-erkidegoko organo legegileek beren eskumenen baitan hartutakoei.

BIGARRENA.- Elkargoko profesionalei buruzko eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailak estatutu hauek onartzeko agindua EHAak argitaratu eta biharamunean jarriko dira indarrean estatutu hauek.



Jesús Coterón

Dekanoa



Arturo Trueba

Idazkari nagusia